

(https://www8.smartadserver.com/click?imgid=24200987&insid=8898562&pgid=1024066&ckid=6222158925355877380&uii=242733999142847177
07-26%2fsagardoa-jai-giroan.htm&go=https%3a%2f%2fwww.berria.eus%2fberrialaguna%2f)



# Sagardoa jai giroan

Hemezortzi sagardogile egongo dira gaur Astigarragan egingo den Sagardo Egunean. Bi mila botila sagardo baino gehiago izango dira

**June Romatet
(https://www.berria.eus/egilea/June_Romatet)**

2019ko uztailak 26

(https://www.facebook.com/sharer/shar
u=https://www.berria.eus/paperekoa/18
07-26/sagardoa-jai-giroan.htm)
(https://twitter.com/share)
0
(https://www.berria.eus/paperekoa/189
07-26/sagardoa-jai-
giroan.htm#disqus_thread)
(https://www.berria.eus/berrialaguna/login)




(https://www8.smartadserver.
imgid=23910334&insid=8768
07-26%2fsagardoa-jai-
giroan.htm&go=https%3a%2f

**Informazio osagarria**

Musika eta antzerkia bat eginik
(https://www.berria.eus/paperekoa/1873/036/001/2019-07-26/musika-eta-antzerkia-bat-eginik.htm)

Kaleak bete ikuskizun
(https://www.berria.eus/paperekoa/1876/036/001/2019-07-26/kaleak-bete-ikuskizun.htm)

Tradizioarekin jarraitzeko Santa Ana egunean, gaur, Sagardo Eguna ospatuko dute Astigarragan (Gipuzkoa). Aurtengo berrikuntza herriko emakumen jostunen lanen erakusketa izango da, 11:30ean hasiko da Foru Plazan.

Festan, Astigarraga eta inguruko hemezortzi sagardogilek parte hartuko dute, eta bi mila

**Gehien irakurriak
(https://www.berria.**

sagardo botila baino gehiago izango dira bertan. «Joan den urtean 2.500 pertsona bildu ziren festara, eta aurten gehiago espero ditugu, zubia tokatzen delako», esan du Leire Alkorta Sagardoaren Lurraldeko komunikazio eta prentsa arduradunak. Sagardo dastatzea11:30ean hasiko da Foru Plazan, eta 14:00etan amaituko da.

Dastaketa baino lehen hasiko dira, hala ere, ospakizunak. Egunari hasiera Iturengo joaldunek emango diote, 09:30ean aterako dira kalera. 10:00etan, berriz, musika eskolako Aire-Aire trikitilariak arituko dira.

Idi demak ere izango dira: Foru Plazan egingo dira, 11:30ean hasita. 12:00etan, plaza berean, bertso saioa egingo dute Agin Laburuk eta Aitor Mendiluzek.

14:00etan hasiko da herri bazkaria, Rezola sagardotegian, Goldea Herri Kirol Batzordeak antolatua da. Arratsaldean, bestalde, herri kirolen jaialdia ospatuko da, aizkolari eta harri-jasotzaileekin, Foru Plazan baita ere.

Arratsaldean, hainbat ekitaldi izango dira: pilota txapelketaren finala, soka mutur txikia eta txaranga, besteak beste.

Gauean, musikak beteko ditu kaleak, hainbat kontzertu izango dira :No Rights, Zulo eta Larriangozoren kontzertuak, txosnetan; ABBA The New Experience, Joseba Barandiaran plazan; eta Rockalean taldea, kalez kale.

## Astigarragako Sagardo Eguna

Gaur, 09:30ean hasita, Astigarragan (Gipuzkoa).

1 Ez duzue ezer ulertu (https://www.berria.
08-04/ez-duzue-ezer-ulertu.htm)
SAIOA ALKAIZA GUALLAR (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/

2 Lau herritarretik bat, kanpoan jaioa (https://www.berria.
08-06/lau-herritarretik-bat-kanpoan-jaioa.htm)
GARIKOITZ GOIKOETXEA (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/

3 Zorigaitzaren biktima izan den harribitxia (https://www.berria.
08-06/zorigaitzaren-biktima-izan-den-harribitxia.htm)
IMANOL MAGRO EIZMENDI (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/

4 Euskararen diru-kontuak (https://www.berria.
08-04/euskararen-diru-kontuak.htm)
PAKO ARISTI (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/

5 Hausnarketan ere elkar hartu dute (https://www.berria.
08-06/hausnarketan-ere-elkar-hartu-dute.htm)
JON ANDER DE LA HOZ (HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/EGILE/



(https://www8.smartadserver.
imgid=24029630&insid=8825
07-26%2fsagardoa-jai-
giroan.htm&go=https%3a%2f

Iruzkinak Komunitatea 1 Saioa hasi

Gomendatu Tweet Partekatu

Berrienetik hasita

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?

Izena

Berria.eus - Euskal Editorea SM
Telefonoa: 943-30 40 30
Faxa: 943-59 01 72
Webgunea: webgunea@berria.eus
Publizitatea: publi@bidera.eus
Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Youtube (https://www.youtube.com/user/berriatb)
Iritzia (https://www.berria.eus/iritzia/)
Infografiak (https://www.berria.eus/infografiak/)
Zozketak (https://www.berria
RSS (https://www.berria.eus/rss/)
Berria TB (https://www.berria.eus/berriatb/)
Argazkiak (https://www.berria.eus/argazkiak/)
Lizentzia (https://www.berria
Publizitatea (https://www.berria
Bidera zerbitzuak (https://www.berria
MIDAS Media (https://www.berria

bai euskarari zerbitzua eta lana euskaraz

Euskadi, auzolana EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia (http://www.gipuzkoa.net)

UZEI (http://www.uzei.eus/online/idite/)

emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza erakundea (http://www.emakunde.euskadi.eus/enpresa-erakundeak/-/informazioa/lankidetza-erakundea/)

berria taldea

berria | bidera zerbitzuak | HITZA | Mauka | BADOK

IRRIEN LAGUNAK | Hamaika telebista | iragarkilaburrak.eus | tolosaldeko ataria | ALEA